



e



EUSKARA

GARESKO UDALA

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA

2023-2027

AURKIBIDEA

1. SARRERA	03
2. EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA GARESEN	04
3. GARESKO HERRITARREN 2022ko AMIA	05
4. PLAN ESTRATEGIKOA: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana	06
5. PLAN ESTRATEGIKOAREN ESPARRUAK GARESEN	07
6. ESPARRUAK	08
6.1. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA	08
6.2. IRAKASKUNTZA: Ikastetxe eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea.	09
6.3. EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	10
6.4. GUNE EUSKALDUNAK	11
6.5. ARLO SOZIOEKONOMIKOA - ZERBITZUAK	12
6.6. KIROLA – AISIA - GAZTEAK	13
6.7. KULTURGINTZA	14
6.8. KOMUNIKAZIOA ETA TEKNOLOGIAK	15
7. ZEHAR-LERROAK	16
SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA	16

1. SARRERA


Garesko Udalak 2023-2027 bitarteko Euskara Planaren erronka nagusiak irudiztatzeko hausnarketa eta eztabaida prozesu bat sustatu du. Aipatutako prozesuak egungo eta etorkizuneko helburuak marraztu eta euskararen normalizazioa bultzatzeko elkarlanerako eta koordinaziorako bideak paratuko ditu.

2023-2027 plan estrategikoaren zirriborroa da esku artean duzuna. Alde batetik, Nafarroakoa oraindik onartua ez dagoenez, Eusko Jaurlaritzak proposatzen duen ESEP marko orokorrean oinarritu gara, eta bertetik, Garesko ezaugarri eta beharrei egokitutakoa. Akitzeko, Euskara zerbitzuak eskainitako informazioa ere inportantea izan da plan honen garatzeko.


Garesko euskararen plan estrategikoa 2023-2027 Udalbatzari onartzeko proposamena egingen zaio, 2023ko otsaila edota martxoko Osoko Bilkuran.

2. EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA EREMU MISTOAN

HIZKUNTZA-GAITASUNA EREMU MISTOAN



KALE ERABILERA GARESEN 2022 (%)



Iturria: 2016ko VI. Inkesta soziolinguistikoa.

Oharra: "Garesko euskararen diagnostiko txostenean" egoera soziolinguistika atalean grafiko hauen azalpenak jaso dira.

3. GARESKO HERRITARREN 2022KO AMIA

Diagnostikoaren baitan 2022ko urriaren 20an Garesko herritarrekin egindako lan-mahai parte-hartzailean jasotako AMIA emaitza da hau. Garesen euskararen erabileraren normalizazioa helburua izanik: zein **oztopo** eta **aldeko** ikusten dituzue Garesen? Garesen euskaraz bizitzeko zein **oztopo** eta **aldeko** ditugu?

ALDE ONAK	HOBETZEKOAK
<p>EZAGUTZA Euskaldun kopuru adierazgarria euskaran eragiteko. Guraso euskaldun kopurua goiti doa. Euskararen ezagutza haurren artean handitzen ari da.</p> <p>ERABILERA Tokiko aldizkarien bidez zabaltzeko aukera. Merkataritza euskaraz; euskaraz erosteko aukera. Garesko administrazioan euskaraz egiteko aukera. Euskara agerian dago; karteletan, karrika izenetan... Euskararen erabilera handitu da; elkarrizketetan, saltokietan... Familia transmisioak goranzko joera du.</p> <p>MOTIBAZIOA/SENTSIBILIZAZIOA Ez dago euskararen kontrako jarrera txarririk. Euskararekiko jarrera aldatuta ona. Nahiz eta euskara ez jakin, agurrak euskaraz entzuten dira karriketetan. Familiek D ereduak aukeratzen dute.</p> <p>EUSKARAREN ESPAZIOAK/EUSKARAZKO ESKAINTZA Aisialdirako jarduerak euskaraz (Tortotxiki, musika eskola...) Azipiegiturak eta baliabideak: AEK, Euskara Zerbitzua, Mintzataldeak, Udala, eskola, haur eskola...</p>	<p>EZAGUTZA: Euskararekiko ezagutza eta erraztasun ttipiagoa. Dendetan ez dakite euskaraz.</p> <p>ERABILERA Euskaraz ikasi eta gero euskararekiko harremana galdu dute gazteek, maila galdu dute eta orain zaila egiten zaie mintzatzea. Gu geu (euskaldunok): dakigunok ahal dugularik ez dugu erabiltzen. Euskaldunen artean ez da bereizgarrikerik erabiltzen identifikatzeko; saltokien kasuan. Kuadrilla aunitz mistoak dira eta euskaraz aritzeko zailtasunak daude.</p> <p>MOTIBAZIOA/SENTSIBILIZAZIOA Borrokak indarra galdu du. Gazteen artean euskararen ikuspegi akademizista dago. Gehiegitan errebindikazioekin lotzen da (sozialak, ekonomikoak, politikoak)</p> <p>EUSKARAREN ESPAZIOAK/EUSKARAZKO ESKAINTZA Arnasgune falta; euskaraz aritzeko eta partekatze espazioak. Euskara eragilearen arteko koordinazio falta. Gaztelaniazko eduki kulturalak. Aisialdirat ez dakigu nola ailegatu. Euskarazko estimuluak falta dira; komunikabideak, filmak, irakurketak...</p>

4. PLAN ESTRATEGIKOA: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana


Garesen euskara sustatzeko estrategiak jasotzen dituen dokumentua da Euskararen Plan Estrategikoa; hurrengo urteetan Garesen euskara indartzeko herritarrek eta Udalak izanen duten lanerako tresna.

GARESKO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN HELBURUAK 2023-2027		
Garesko udalerrian euskararen ezagutza eta erabilera handitzea, batez ere haur eta gazteen eremuan. Era berean, eragileekin elkarlana lantzea eta sinergiak batzea.		
HELBURU ESTRATEGIKOAK	ESPARRUAK (GARES)	ZE HAR LERROAK
EUSKARAREN JABEKUNTZA	1. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA	SENTSIBILIZAZIO ETA MOTIBAZIOA
	2. IRAKASKUNTZA	
	3. EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	
EUSKARAREN ERABILERA	4. GUNE EUSKALDUNAK	
	5. ARLO SOZIOEKONOMIKOA - ZERBITZUAK	
	6. KIROLA-AISIA-GAZTEAK	
EUSKARAREN ELIKADURA	7. KULTURGINTZA	
	8. KOMUNIKAZIOA ETA TEKNOLOGIAK	

5. PLAN ESTRATEGIKOAREN ESPARRUAK GARESEN¹

Hauek dira lehenetsitako esparruak, euskararen ezagutzaren eta erabileraren aldeko aurrerapausoak emateko:

1. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA
2. IRAKASKUNTZA
3. EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
4. GUNE EUSKALDUNAK
5. ARLO SOZIOEKONOMIKOA – ZERBITZUAK
6. KIROLA - AISIA - GAZTEAK
7. KULTURGINTZA
8. KOMUNIKAZIOA ETA TEKNOLOGIAK



1 Udal erabilera plana aparteko dokumentu batean aurkeztu da: *Garesko Udalaren Plan Estrategikoa 2023-2027*



6. ESPARRUAK - 1. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Familia da hurrek euskara ikasteko duten lehen gunea; esparru honetan Garesko Udalak aparteko lana egin nahi du, guraso eta ikastetxeekin elkarlanean. Egun, Garesko 20 urtetik beherako haur eta gazteek euskara ezagutzen dute; euskarari espazioak eskaintzea gakoa izanen da erabilera handitu nahi bada.

HELBURU ZEHATZAK		2023	2024	2025	2026	2027
1.1	Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea.					
1.2	Familian euskararen transmisioa aktibatzea; erabilera eta euskararen sustapena egiteko jendartean.					
1.3	Familietan euskara etxeko hizkuntza izatea.					

EKINTZAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Telebistan euskarazko marrazki bizidunak sustatu. (1.1) • Erdara-euskara harremanak normalizatu – Hurrek euskaraz egiteko. (1.2 eta 1.3) • Gurasoein (GE-en bitartez) eskolaz kanpoko euskararen erabileraren garrantzia landu: Kafe tertuliak, hitzaldiak, testigantzak... (1.2) • Transmisioan erregistro ez formalak landu: jokoak, ipuinak, kantak...(1.1) • Jostailuak ikusgai; ikusgarritasuna eman. (1.1) • Sentsibilizazio kanpainak zabaldu guraso, gurasogai eta familiendako oro har. (1.2 eta 1.3) • Umeak eta familiak biltzen diren inguruetan, euskarazko giroa sustatu (parkeetan, ikastetxeetako patioetan, ludotekan...) (1.2) • Euskarazko produktuen inguruko informazioa zabaldu euskarri desberdinak erabilita. (1.1) • Gurasoen hizkuntza-jokabideak lantzeko, hizkuntza-tresnak ezagutzeko...lantegiak eskaini. (1.2 eta 1.3) • Gurasolagun taldeak sortu. (1.2) 	<p>Eragiteko sektoreak</p> <p>Gurasoak, gurasogaiak, aitatxi-amatxiak...</p> <p>Arduradunak</p> <p>Euskara Zerbitzua, ikastetxeak, Guraso Elkartek</p>



6. ESPARRUAK - 2. IRAKASKUNTZA

Ikastetxe eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea ere helburu nagusietako bat izanen da. Lehenbiziko eta Bigarren Hezkuntzan eta eskolaz kanpoko jardueretan eragin nahi du batez ere.

Garesko Udala ikastetxeekin elkarlanean hainbat jarduera bideratzen ari da gaur egun eta euskara esparru formaletik kanpo ere erabiltzeko lana egin nahi du.

HELBURU ZEHATZAK		2023	2024	2025	2026	2027
2.1	Ikastetxearen inguru hurbileko harremanetan eta ekintzetan (ekosistema) euskara sustatzea.					
2.2	Ikasketetan euskarazko eredia hautatzea sustatzea: lehenbiziko eta bigarren hezkuntza osoa.					
2.3	Hizkuntza proiektua eskolan garatzea euskararen erabileraren mesederako.					

EKINTZAK	
<ul style="list-style-type: none"> Eskola hizkuntza proiektua tokiko erakundeen laguntzaz edo kolaborazioaz egin. (2.3) Bertako jendearekin egindako matrikulazioaren aldeko kanpainak, formatu ezberdinak. (2.2) Guraso Elkarateak kudeatutako ludoteka sortu Udalarekin elkarlanean. (2.1) Estrategiak garatzeko hizkuntza proiektua. (2.3) Euskal kulturaren inguruan lanketak egin. (2.1) Hizkuntza lidergoa eta erabilera handitzeko ekimenak sustatu, gazteen artean hizkuntza-ohitura berriak sortzeko eta euskara harreman hizkuntza gisa bultzatzeko. (2.1) 	Eragiteko sektoreak
	Guraso elkarateak, ikastetxeak...
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua, ikastetxeak, Guraso Elkarateak



6. ESPARRUAK - 3. EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEA

Garesko helduen euskalduntzea erronka handia da, eta horregatik euskaltegiek neurri eta maila desberdinetako euskara ikastaroak eskaintzen dituzte. Euskalduntzen ari diren lagunen dako garrantzitsua da erabilera eta horretarako, Garesko Udalak aspaldi martxan jarri zuen Mintzalagun egitasmoa, euskara praktikatzeko guneak eskainiz.

Aktibazioaren inguruan sortzen ari den mugimenduan Garesko Udalak eragile zuzena izan nahi du.

HELBURU ZEHATZAK		2023	2024	2025	2026	2027
3.1	Euskaltegiak kanpoko egitasmoak sustatzea, euskara praktikatzeko aukerak zabaltzea.					
3.2	Etorri berriak euskarara hurbiltzeko programak diseinatzea eta garatzea.					
3.3	Herriko eta kultur dinamiketan ikasle eta irakasleen parte hartze aktibo izatea.					

EKINTZAK	
<ul style="list-style-type: none"> Etorri berriak: agerikoa ez dena erakutsi; euskara gudan, eskola, %... (3.3) Mintzalagun (3.1) Kanpotik etorritako familiei zuzendutako informazio eta sentsibilizazio kanpainak bideratu; harrera protokoloa... (3.2) Eskola + AEK elkarlana. Urtero proiekturen bat. A ereduaz? (3.3) Euskara ikasleendako beka-sistema egokitu eta eguneratu urtez urteko beharrak kontuan hartuta. Euskaraldia eta aktibazioarekin lotutako ekimenak sustatu. (3.1) Mintzalagun egitasmoa indartu eta zabaldu. Ekintza erakargarriak diseinatu eta sustatu. (3.1) 	Eragiteko sektoreak
	Guraso elkarteak, ikastetxeak...
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua, ikastetxeak, Guraso Elkarteak



6. ESPARRUAK - 4. GUNE EUSKALDUNAK

Garestarrek propio proposatutako esparrua dugu hau, euskaldunak biltzeko, espazio komunak izateko, euskalgintza indartzeko... Beharrezkoa ikusten da euskal komunitatea indartzeko eta aktibo izateko ekintzak garatzea.

HELBURU ZEHATZAK		2023	2024	2025	2026	2027
4.1	Ariguneak sortzea					
4.2	Euskalgintza/Euskara Batzorde talde sendo eta koordinatua sortzea					

EKINTZAK	
<ul style="list-style-type: none"> Jarduera eta leku finakoak bilatu, ahal bada, noski, bestela sortu. (4.1) Euskara Batzordea birsortu; ezagutzera eman, dinamikoa, herritarrei hurbildu. HAUSNARTU. (4.2) Euskara ekosistema indartu. (4.2) Eragileen arteko harremanak sendotu ekintzak bateratu eta talde dinamikak sortzeko (Elkargunea eratu: Udala, euskaltegiak, Garelako...) (4.2) Ahalduntzerako ikastaroak eskaini. (4.1) 	Eragiteko sektoreak
	Euskalgintza, euskara Batzordea, herritar euskaldunak, gazteak, umeak...
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua




6. ESPARRUAK - 5. ARLO SOZIOEKONOMIKOA - ZERBITZUAK

Garesko arlo sozioekonomikoan -denda, taberna eta zerbitzu enpresetan- euskararen presentzia eta erabilera handitzeko ekimenak eta baliabideak eskiniko ditu Udalak. Erabiltzaile eta kontsumitzaileei hizkuntza aukera errazteko tresnak eskainiko dizkie establezimenduei. Esparru honetan komertzio eta zerbitzu ttipia lehenetsi dira udalerrian bertan kokatuak daudelako; herriko merkataritza.

HELBURU ZEHATZAK		2023	2024	2025	2026	2027
5.1	Enpresa jardunean euskararen erabilera sustatzea.					
5.2	Udalerriko zerbitzuetan euskararen erabilera bermatzeko urratsak egitea.					
5.3	Merkataritzan euskararen presentzia areagotzea (ahozkoan zein hizkuntza paisaian).					

EKINTZAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Enpresekin kontaktua egin euskararen presentzia handitzeko; aholkularitza zerbitzuen informazioa eskaini... (5.1) • NG dirulaguntzen informazio eskuorri banatu. (5.1) • Arigune iraunkorrak. (5.1, 5.2 eta 5.3) • Komertzio euskaldunen gida. (5.2) • Merkataritza egitasmoa: aholkularitza, hizkuntza paisaian eragiteko euskarriak eta baliabideak eskaini... (5.3) • Kanpo irudia euskaraz ere jartzeko sentsibilizazio lana egin eta pizgarriak eskaini (diru-laguntza...). (5.3) • Merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko komunikazio kanpainak egin. (5.2 eta 5.3) 	<p>Eragiteko sektoreak</p> <p>Merkatariak, ostalariak, zerbitzu enpresak, enpresak...</p> <p>Arduradunak</p> <p>Euskara Zerbitzua, Turismo bulegoa</p>



6. ESPARRUAK - 6. KIROLA-AISIA-GAZTEAK

Esparru hauetan euskaraz aritzea oso garrantzitsua da, bereziki haur eta gazteen artean. Hori dela eta, haur eta gazteen aisialdirako, euskarazko espazioak erraztea helburu du Udalak. Esparru hauetan hezitzaileen hizkuntza-trebakuntza, eredugarritasuna eta hizkuntza-lidergoa lantzea ezinbestekoa da, haur eta gazteen ispilu baitira.

HELBURU ZEHATZAK		2023	2024	2025	2026	2027
6.1	Aisialdiko eta kiroleko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea, batez ere haur eta gazteen esparruan. (Estrategiak landu)					
6.2	Kuadrillan lagunen arteko harremanak euskaraz lantzea					
6.3	Aisialdiaren euskarazko eskaintza handitzea.					

EKINTZAK	
<ul style="list-style-type: none"> Jarduera desberdinetan talde mistoak proposatu. Kuadrillen arteko jardueretan euskara proposatu. (6.2) Euskararen eguna berreskuratu. (6.3) Garesko gazteek aisialdiko formakuntza jaso, gerora udalekuak bertakoetatik bertakoetara. (6.1) Aisialdi sarearekin elkarlanean, begiraleen hizkuntza-gaitasuna eta trebakuntza aztertu eta baliabideak eskaini, zerbitzua euskaraz edota ele bitan eskain dezaten; hizkuntza kudeaketa landu. (6.1 eta 6.3) Gazteen iritziak jaso; haiei galdetu. (6.1 eta 6.2) Nerabeen aisialdi eskaintza aztertu eta hobetzeko gazte-lantaldea eratu, gazteak eurak erdigunean jarrita. (6.1) Elkarrizketa elebidunak normalizatu; ahalduntzea. (6.2) Mintzakuadrillak. (6.2) Haurrei zuzendutako euskarazko aisialdi eskaintza erakargarria. (6.3) Gazteei zuzendutako euskarazko aisialdi eskaintza erakargarria. (6.3) Astean edo hilabetean behin ume eta gazteendako jarduera finkoak euskaraz antolatu: zinema, serieak, kirolak, ginkana... (6.1 eta 6.3) 	<p>Eragiteko sektoreak</p> <p>Aisialdi Sareko eragileak, begiraleak, Kirol taldeak</p> <p>Arduradunak</p> <p>Euskara Zerbitzua, Kultur zerbitzua, Mankomunitatea</p>



6. ESPARRUAK - 7. KULTURGINTZA

Garesko Udalak euskarazko kulturaren zabalkundea egiten du haur, gazte eta helduendako eskaintza zabala aurkeztuz. Euskara Zerbitzuak bertze udal sail batzuekin batera euskarazko kultura kontsumitzeko eta sorkuntza lantzeko ekintzak antolatzen ditu.

HELBURU ZEHATZAK		2023	2024	2025	2026	2027
7.1	Euskarazko sormena bultzatzea (laguntzak ematea...).					
7.2	Euskarak eta euskarazko kultura zentralitatea irabaztea herrian.					
7.3	Kulturen arteko harremanak lantzea.					
7.4	Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea, euskal kultura ume, gazte eta helduengana hurbiltzea.					

EKINTZAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Irakurketa eta musika kluba antolatu. (7.1 eta 7.4) • Hilabetero helduendako jarduera kulturalak antolatu. (12 hilabete 12 jarduera). (7.2 eta 7.4) • "Kantuz" talde bat osatu. (7.2) • Garelako indartu. Kultur Elkarte sortzeko motibazioa piztu.(7.2) • Herriko jarduera kulturaletan, bestetan... guztia euskaraz eginen duen talde bat proposatu. (7.2 eta 7.4) • Liburutegiak urtero euskarazko hainbat liburu berri erosi eta toki ikusgarrian paratu horiek zabaltzeko. (7.1, 7.2 eta 7.4) • Literatur ekitaldiak antolatu. (7.1) • Euskaraz irakurtzearen aldeko kanpainak sustatu. (7.2 eta 7.4) • Irakurraldi etengabea antolatu eta parte hartzea sustatu ikasle-gazte, euskara-ikasle... (7.1) • Kultur desberdinen inguruko topaketak antolatzea (7.3) 	<p>Eragiteko sektoreak</p> <p>Haur eta gazteak, herritarrak oro har, liburu-dendak, Kultur elkarteak</p> <p>Arduradunak</p> <p>Euskara Zerbitzua, Kultura Saila, liburutegia, Mankomunitatea</p>



6. ESPARRUAK - 8. KOMUNIKAZIOA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa bateratu eta zabaldu nahi du Udalak, herritar orok eskura eduki ahal izateko eta autonomia lantzeko.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatzea, euskarak aisialdian izaten ahal duen garapenari bultzada emateko.

HELBURU ZEHATZAK		2023	2024	2025	2026	2027
8.1	Euskarazko sormena bultzatzea (laguntzak ematea...).					
8.2	Euskarak eta euskarazko kultura zentralitatea irabaztea herrian.					

EKINTZAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Interneten dauden jardueren berri eman; Elaide. (8.1 eta 8.2) • Interneten dagoen eskaintza ezagutzera eman. (8.1 eta 8.2) • Sare Sozialekin kanpainaren bat abiatu; "egunero argitalpen bat euskaraz". (8.2) • Sormena sustatu. (8.2) 	Eragiteko sektoreak
	Herritarrak oro har, euskara ikasleak...
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua.

7. ZEHAR-LERROAK – 9. SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA

HERRITARRAK ORO HAR

- | |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 9.1 Euskararen balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea; produktu erakargarriak sortzea. |
| 9.2 Euskara etorri berriendako integrazio bidea izatea. |
| 9.3 Sentsibilizazioa eta motibazioa lantzea etengabe. |